


panpano

2017ko abendua

aresoko aldizkaria

ZIRI



**Hartu soka,
tenka, tira!**

FELISA PELLEJERO UGALDE

GARAI BATEKO ARESO

ARESOKO MAPAK

BERTSOLARITZA ARESON

INGURUTXOA

ETA GEHIAGO...

ZENBAKI
HONETAN

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.eus

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Aldizkaria idatzi eta osatu duen lantaldea:
Ana Goñi, Jaione Olazabal, Juana Mari Saizar, Pello Belauntzaran, Uxue Goikoetxea, Eneritz Iraola eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.

LG NA 2710-2017

AURKEZPENA 3

SOKATIRA: OROITZAPENEI TIRAKA 4-10

ARESOARREI GALDEZKA 11

GARAI BATEKO ARESO 12-15

**FELISA PELLEJERO UGALDE,
ARESOKO TENISLARIA 6-18**

INGURUTXOA 19-21

BERTSOLARITZA ARESON 22-23

ARESOKO MAPAK 24-25

DENBORA-PASAK 26-17

**ARESON ESTALPEA EDO
TOKI ITXIA BEHAR DUGU 28**



Hemen da PANPANOZIRI aldizkariaren laugarren alea. Abenduarekin batera, eta bi urtez behin, iristen da Aresoko etxe guztietara.

Urteurren esanguratsu bat ekarriko digu ale honetako lehendabiziko erreportajeak. Izan ere, Aresoko sokatira taldeak 25 urte beteko ditu laster, eta urtemuga borobil hau merezi bezala gogoratu eta ospatzeko erreportaje bat osatu dugu, hainbat kontu bilduz: nola hasi zen sokatira taldea, ze ibilbide egin zuen, zenbat txapelketa irabazi zituen, eta herritarrek nola gogoratzen duten garai oparo hura. Areso herriaren izena munduan barrena zabaldu zuten sokatiralari haiek.

Urte batzuetan atzera egiteko aukera ematen digute garai bateko irudiek. Aresoar batzuk utzitako argazkiak dira, eta benetan eskertzekoa da izaten duten borondatea. Haiei esker lortzen dugu Aresoren albuma osatzea, eta guztion etxeetara iristea.

Ale honek badu izen propio bat ere, Felisa Pellejero Ugalde, erraketista ezaguna. 40ko hamarkadan, emakumeek erraketan jokatzeko oso ohikoa ez zen garaietan aitzindaria izan zen Felisa aresoarra. Haren bizimodua kontatuz osatu dugu bigarren erreportajea.

Ingurutxoari buruz ere izanen dituzue hainbat kontu. Xabier Olazabalek dantza ezagun honen inguruko ikerketa du egin eta hor aztertutako gai batzuk ekarri ditu

Panpanozirira, ingurutxo hobeki ezagutzeko bidea emanez.

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren urtea ere badenez, bertsoei lekua egin diegu orri hauetan. Aresok lotura estua izan du bertsolaritzarekin, eta 1962ko txapelketa gogoratuko dugu horren adibide gisara.

Bukatzeko, Aresoko etxeak eta base-riak jasotzen dituzten 2 mapa berri izanen dituzue. Mapa erabilgarri eta errazak, herria hobeki ezagutzeko. Eta amaieran, beti bezala, denbora-pasak ere prestatu dizkizuegu, herriaren inguruan ikasiz jolas egiteko.

Kontrazalera iristen zaretenerako herriari errepasso polita egin izanen diozue. Zuen gustukoa izanen dadila!



Aresoko sokatira taldearen tiraldia herrian.

Oroitzapenei tiraka

Duela 24 urte sokari lehenengoz heldu ziotenean, gutxi espero zezaketen noraino iritsiko zen talde hura. 1993an bildu ziren lehenbizikoz, inguruko hainbat herritako plazetan aritu ziren segidan eta txapelketaz txapelketa garaipenak biltzen joan ziren; bai Nafarroa mailan eta baita Euskal Herrikoan ere. Hala, nazioartean ere zabaldu zuten Areso izena eta 1999an Munduko Txapelketa irabazi zuten. Tartean, entrenamendu asko eta tripa-zorriak ere nahi baino gehiagotan izan zituzten dantzan. Tiraldiz tiraldi pertsonak ere lotu zituen sokak. 2010. urtean bukatu zen sokatira taldea, baina ez laguntasuna. Horren erakusle dira oraindik ere egiten dituzten bazkariak. Apirilean egin zuten azkena eta bertan oroitzapenei tiraka aritu ziren, garai zaharrak gogoan hartuz.

Hasiera

la mende laurdena egin behar da atzera Aresoko sokatira taldearen sorrerako urteaz hitz egiteko. Hain juxtu, 2018ko ekainaren 13an beteko dira 25 urte sokatira taldea sortu zenetik. Jexux Artolak azaldu duenez kultur egun bat antolatzen ari ziren sokatira taldearen ideia sortu zitzaizkion: «Mikel Baraibar, Jabier Otermin eta ni kultur egun bat antolatzen ari ginen eta Udaletxean egin genuen bilera batean Mikelek esan zigun joan beharra zuela Ultzamara sokatirara. Uitziz-Gorriti taldearekin tiratzen zuen berak. Orduan esan genuen zergatik ez ote genuen guk egiten kultur egunerako zer edo zer». Esan eta egin. Lehendabiziko entrenamendua plazako trinketean egin zuten ekainaren 13an: «ongi akordatzen naiz, egun hartan nire urteak ziren eta. Astibiako pentsu al-

mazenekoak eman zizkigun soka batzuk eta plazako trinketean egin genuen entrenamendua, kuadrilla bat bildu ginen».

Herrikoak ziren hasierako tiralari guztiak eta taldean aritzeko baldintza bakarra gogoia izatea zen: «Jexux eta Txomin Artola, Jabier Otermin, Batistiko Etxarri, Joxe Martin eta bere anaie, Mikel Zabaleta, Mikel Arraiago eta Txomin Belauntzaran aritzen ginen. Ume umea zen Txomin 14-15 urterekin». Ongi gogoan dute lehendabiziko tiraldia ere: «Gorriti-Uitziren kontra egin genuen. Mikel Baraibarren kontra eta ez dakit nola baina irabazi egin genuen eta sekulako ilusia egin zigun».

Ibilbide oparoa

Josu Etxezarreta entrenatzailearen esanetara, pixkanaka, txapelketetan beren bidea egiten hasi ziren. 1994an bigarren mailan



1996an Gasteizen sokatira taldeko kideak eta animatzera joandako herritarrak.

640 kilotan Euskadiko txapelkunak izatea lortu zuten, baina 1996an geratu zen agerian talde indartsuen artean egoteko aukerak zituztela: Euskadiko txapelketan 600 kilotan bigarren postua lortu zuten, 680 kilotan hirugarrena eta Nafarroako txapelkunak izan ziren 640 kilotan. Taldeki-de berriak batu zitzaizkion orduan taldeari eta 1997an amets guztiak egia bihurtu zitzezkeela ikusi zuten. Euskadiko txapelketa irabaztea lortu zuten 600 kilotan eta horrek Munduko txapelketan parte hartzeko aukera eman zien Euskal Herria ordezkatzuz. Bertan, brontzezko domina lortu zuten eta urteari bukaera borobila emateko Nafarroako 680 eta 600 kiloko txapelak ere jantzi zituzten. 1998. urtea ere bikaina izan zen, Euskadiko bi txapelen jabe egin ziren 600 eta 640 kilotan eta Nafarroako 640 eta 680 kilotakoak ere irabazi zituzten.

Munduko txapelketan urrezko domina

1999. urtean bildu zituen Aresoko sokatira taldeak egindako lanaren fruituak. Beteranoek eta gazteek osatzen zuten orduko



1996ko herriko pestetan egindako saioaren ondoren.

taldea: Jabier, Jose eta Jon Otermin, Migel Angel Sukunza, Boni Etxetxikia, Karlos Zabaleta, Mikel Arraiago, Patxi Baraibar, Jose Migel Artola, Joseba Olazabal, Jexux eta Txomin Artola, Juan Mari Izeta, Mikel Baraibar, Xabier Arraras eta Angel Mari Loiarrek. Euskal Herriko lau txapele-

tatik laurak jantzi ondoren argi geratu zen Areso prest zegoela Carlown jokatzekoa zen Munduko Txapelketarako. 560 kilotan Klub mailan hirugarren postua lortu zuten, Nazio mailan bigarren geratu ziren 560 kilotan eta Munduko txapelkunak izan ziren 600 kilotan.



1999ko Munduko txapelketa irabazi zuten tiralariak gaur egun.

Irabazi zitekeen guztia irabazita, erronka berriei heldu zien taldeak 2001ean. Hainbat beteranok taldea utzi zuten eta gomatik lurrerako saltoa egiteko momentu egokia zela erabaki zuten. 2002an, Azpeitian Euskadiko lur gaineko txapelketa irabazi zuten 560 kilotan baina pixkanaka itzaltzen joan zen aurreko urtetako dizdira. 2010ean bukatu zen sokatira taldea eta azken tiralariak "Gorri", Patxi, "Pexkau", Gari, Jabier, Iñaki, Miel, Imanol eta Antton izan ziren.

Entrenamenduak

Garaipen horiek guztiak lortzeko izerdia latz bota behar izan zuten. Astelehenetik larunbatera egunero entrenatzen zuten: «aurrenean normalean sokako entrenamenduak hiru egunez egiten genituen eta fisikoa hiru egunez, tirada hasi arte. Gero behin forma hartu eta tiradako asteburua zenean normalean izaten ziren bi entrenamendu sokan ta hiru fisiko alterna-



1999an goma gaineko Munduko txapelketa irabazi zuten tiralariak Carlown.

tuz». Sasoiko egoteaz gain, teknikak ere garrantzia handia baitzuen: «fisikoki ongi egotea inportantea da oso baina sokan entrenatzen zenuenean ikasten zenuen teknika ere bai, sokan tiratzen jakin behar

baita. Entrenadoreak berak erakusten ziren: okertuta zaude, gehiago makurtu, gerria sartu...».

Entrenatzeko tokia ere aldatzen joan ziren: «lehendabizi trinketean, gero Ju-

lioren granjan eta urte mordoska batez, Leitzalarreko bidean zegoen Mandriladora zaharrek poligonoan aritu ginen. Goma gainean aritutako azken urteak, Elutsederren egin genituen eta gero lurrean hasi ginenean aurrena *kakazelai*en eta gero Aurrerako lehengo futbol zelaian».

Oinetako bereziak

Sokatiran aritzeko oinetako bereziak erabili behar izan zituzten: «goman aritzen ginenean, kautxo berezi bat jartzen genien gutxiago irristatzeko. Lurrean, berriz, erabiltzen genituen botei azkeneko takioian txapazko perra bat jartzen genien lurra hobekiago zulatzeke». Taldekide guztiek aitortu dutenez nahikoa lan izaten zituzten gomazko zapatilekin: «beti esperimentatzen aritzen ginen. Hasieran Dulop markako zapatillak erabiltzen genituen, haiek bakarra zeuden autorizatuta. Baina, zola behar zuen lisoa, berdina eta gure entrenadore Josuk, Nuarbeko bere entrenadoreari ematen zizkion, hura zapateroa zenez berak jartzen zigun goma. Baina segituan harrotzen zen eta diru asko kostatzen zen. Gero joaten ginen Gasteizera kautxoak jartzera baina ez ginen konforme. Gero Elizondora, gero berriz Gasteizera. Behin ere ez ginen konforme egoten». Tiraldia ere juxtu juxtuan irauten zieten: «baziren tiradako hiru zapatilla pare puskatzen zituztenak ere! Askotan tiradako zapatilla puntatik harrotzen zen. Boltsak zapatiliez beteta egoten ziren eta han bila aritu beharra izaten genuen: zenbakia, ezkerrekoa, eskuinekoa...». Zapatillak zapatilla, «taldea ongi zegoenean, fuerte eta ongi entrenatua, zapatilla txarrenekin ere tiratu egiten genuen. Eta gaizki ari ginenean, nahiz eta mila modutara probatu, zapatilla batekin eta bestearekin, ez genuen tiratzen».

Arropek ere ematen zuten nahikoa lan: «gutako askok ahal bazen ez genituen garbitzen. Erretxina eta izerdia, ongi heldu ziren hurrengo tiraldirako, ongi eusten zuen soka». Horrek, ordea, muga ere bazuen: «tirada hasi aurretik epaileek eskua pasatzen ziguten gainera dena ongi zegoen jakiteko, garbia ote zegoen nikia eta orduan ez garbitze horrek ere limitea zeukan». Garbitu beharra izaten zenetan



2002an lur gaineko Euskal Herriko txapelketa irabazi zuten.



Entrenamenduetako ajeak.

«amaren esku trebea aritzen zen gehienetan, KH7, gasoila... denetik behar izaten zuen».

Gosea

Entrenamendu eta tiraldietako nekeari aurre egiteaz gain, pisuari ere erreparatu beharra izaten zioten: «kiloak gora eta behera ibiltzen ginen beti eta gosea pasa beharra izaten zen txarrena». Beraien ingurukoek ere badakite horri buruz zertxobait, «etxeokokin, lagunekin, entrenamenduetan... segituan saltatzen genuen». Hala ere, azkeneko «gorputza jarri» egiten omen da: «hasieran gogorra egiten zen baina bukaeran mentalizatugoa edo helburu baterako dela badakizu».

Denboraldia hasi aurretik hasten ziren pisua galtzen eta halako batean entrentzaileak zehazten zien lortu beharreko pisua zein zen: «zuk hainbeste kilo, zuk hainbeste... 15 kilo galtzera ailegatu izan gara». Azkeneko egunean izaten ziren komerkiak: «azken ostiralean denak ekipoan pisatzen ginen, bagenekien zenbat kilotan ginen eta kalkulatzen genuen gau batean pertsona batek kilo erdi bat galtzen duela gutxi gora behera. Orduan ikusten genuen ostiralean ginela bi kilo azpitik... eta kilo horiek denen artean banatzen genituen. Bestela afaldu gabe, gauean ura edo edan zitekeen». Elkarrekin haserrealdiak ere izaten zituzten: «pisu gainera igo eta

bi kilo eta erdi goitik bazegoen... benga laisterrera denak!». Aurkako ere gertatzen zitzairen: «astea jan gabe egoten ginen, bezperan ere ura edateko beldurrez eta gero tiradako egunean pisatu eta bi kilo eta erdi behetik. Orduan ere a ze bronkak entrenadoreak! Beti izaten genuen beldur hori, pasako ote ginen edo. Gero askotan tirada aurretik gehiegi jaten genuen anti horrekin eta aurreneko tiradan beti kolkotik gora jana». Eta tirada aurretik laguntza txiki bat ere izaten zuten: «kafe hutsa eta whisky kopa luzea goraino betea. Sokatira utzi genuenean kafea ta whiskiarekin segi genuen!».

Sufrimenduak sufrimendu, urtetan segitzea erabaki zuten gehienek: «lagun talde bat egiten duzu eta zerbaiten parte sentitzen zara. Bizio bat ere bada, nahiz eta sufritzen duzun, tirada eguna ailegatu, pisatu, pixka bat jan eta han bukatzen dira denak. Berriz ere umorean, gorputzak segitzea eskatzen dizu».

Herritarren babesa

Herritarren animoak ere ez zituzten falta izan: «beti norbait izaten genuen, kua-drillakoak, gazteak, neskak... errutiko tiraldietara ere joaten ziren. Eta bertako tiraldietara herriko jendea ere dexente joaten zen, jai goiza bazen goiza pasa edo». Gainera, kontuan izan behar da tiralariek proba bakoitzaren aurretik pi-

satzeko garaiz joan behar izaten zutela eta hurbilekoenak ere beraiekin batera izaten zirela: «larunbat arratsaldetan 17:00etan bazen tiraldia pisua hiru ordu lehenago irekitzen zen eta 14:00etarako han egon behar genuen eta gauean etxera etortzerako 23:00ak izaten ziren. Igan-dean 11:00etan hasten ziren tiraldiak eta 08:00etan irekitzen zen pisua». Sokatira taldea finantzatzekoan ere izan zuten herritarren laguntza: «txapelak irabazi arren ez genuen laguntza handiegirik izaten eta erakustaldietan ateratzen genuen dirutik ordaintzen genituen gastu gehienak. Aresoko festetan ere jartzen genuen kantina bat, boletoak saldu... ingurukoek ere asko lagundu ziguten».

Euskal Herritik nazioartera

Euskal Herrian aritzetik nazioartera pasatu zirenean ikusi zuten kanpoan ere bazekitela sokatiran: «sokatiran euskaldunak bakarrik aritzen garela pentsatu izan dugu, baina ez da hala. Japonian adibidez 3.000 talde ari ziren momentu horretan, eskolak dituzte... Euskal Herrian garairik hoberenetan 16 bat talde egon izango dira». Aurkari gogorrekin topo egin zuten: «Irlanda eta Ingalaterrako taldeak ziren gogorrenak». Tiratzeko eta sokatira bizitzeko modu desberdinak ikusteko aukera ere izan zuten: «guk gehiago tiratzen genuen presioa eginez, indarrez. Ingelesak lanean hasieratik hasi eta eutsi egiten zioten, japoniarrek zirt edo zart egiten zuten hasieratik...».

Aipagarria da aresoarrek ez zutela Euskal Herriaren izenean aritzeko aukerarik: «Espainia bezala joaten ginen, Espainiako kartelarekin. Nahiz eta ikurrina batekin tapatuta eta buruz behera eraman. Espainiako trajea eramatera ez gintuzten behartzen. Euskadiko trajea janzten genuen eta irabazten bagenuen Espainiako ereserkia jarri beharrean *We are the champions* jartzen ziguten».

Gomatik lurrera

2001. urten gomatik lurrerako saltoa egitea erabaki zuten: Josu, entrentzailea Nuaberko taldeokokin lurrean aritzen zen eta berak gogo hori zuen. Goma afizionatuen zela esaten zigun eta lurra zela profesionala». Taldean ibiltzen ziren zazpi edo



1997an Torbay-tik iritsi berritan herritarrek ongietorria egin zieten sokatira taldeko kideei.

zortzik taldea utzi zuten orduan eta aldaketa egiteko momentu ona zela erabaki zuten: «gazteak hartu eta berri berritik lurrean hasteko». Eta taldeak urte batzuetan lanean segi bazuen ere, ez zuen garai bateko dizdira izan: «Joseba gure artetik joan zen, taldearen pilare ziren taldekide dezente taldea utzi zuten eta pixkanaka behera joan zen taldea».

Oroitzapen gozoak

Sokatira taldeari buruz hitz egiten hasitakoan denei marrazten zaie irribarre bat aurpegian: «entrenatzera joan eta zeinen ongi pasatzen genuen». Sekulako ilusioarekin ibili ziren, leku asko ezagutu eta gorputzaren mugak ezagutu. «Lagunartean bizitako momentuak» azpimarratzen dituzte guztiek, «kuadrilla bat sekulakoa ginen, 20 bat lagun beti elkarrekin ibiltzen ginen eta sekula inorekin ez ginen haseratu». Eta aho batez gogorrena «gosea» izan zela aipatzen duten arren, bat datoz esatean: «esfortzuak saria zuela ikustea bezelakorik ez zegoen».

Kontuak eta komeriak

Urte hauetan milaka anekdota bizi izan dituzte eta kontatzeko modukoak diren batzuk bildu ditugu segidan:

- Holandan pisua aldatu ziguten, okerrekoa hartu eta deitu ziguten berriz joateko esanez. Presaka gindoazen, txofer Patxi, Sorobarren, Joan Mari eta Arraiago

PALMARESA

GOMA GAINEAN

- 1994 Nafarroako txapeldun bigarren mailan 640 kg-tan.
- 1996 Nafarroako txapeldun 640 kg-tan.
- 1997 Euskal Herriko txapeldun 600 kg-tan.
- 1997 Munduko txapelketan brontzea 600 kg-tan Nazio Mailan.
- 1997 Nafarroako txapeldun 680 eta 600 kg-tan.
- 1998 Euskal Herriko txapeldun 600 eta 640 kg-tan.
- 1998 Nafarroako txapeldun 680 eta 640 kg-tan.
- 1999 Euskal Herriko txapeldun 560, 600, 640 eta 680 kg-tan.
- 1999 Munduko txapelketan brontzea 560 kg-tan klub mailan.
- 1999 Munduko txapelketan bigarren 560 kg-tan nazio mailan.
- 1999 Munduko txapeldun 600 kg-tan nazio mailan.
- 2000 Munduko txapelketan bigarren 560 kg-tan klub mailan.

LUR GAINEAN

- 2001 Euskadiko txapeldun 560 kg-tan.
- 2002 Euskadiko txapeldun 560 kg-tan.
- 2003 Euskadiko txapeldun 560 kg-tan.
- 2004 Euskadiko txapeldun 560 kg-tan.



izango ziren eta bide erdian kortzo bat. Eta Arraiagok gelditzeko eta gelditzeko, harrapatu behar zuela. Eta denak: *bai hik harrapatuko dek!* Jata, martxan ate korredera irekitzen du, gu zirikatzen: ezetz harrapatu! Eta berak baietz! Eta

pikean ateratzen da kortzoan atzetik... eta karretera pasata kortzoa hantxe seko, susto batekin edo hilda.

- Gure oheak izenarekin genituen Holandan, Bungalow batzuetan eta bat Luixenborda zen. Mila Luixenbordakoa

han zen eta gauetan elkartzen ginen, postreak egiten zizkigun eta gure arten hala esaten genuen: *Benga goazen Lui-xenborda! Eta denak hara.*

- Urte batean Irlandatik bueltan, urte hartan ezkontzen zen Sorobarren eta despedida egiteko denborarik ez zegoen. Tirada bukatu ondoren jendeak edaria erosi zuen etxera ekartzeko gelan elkartu, atera edariak eta hantxe denak edan eta fuera! Gero diskotekara joan ginen eta autobusa genuen goizeko 2etan eta halako batean: *hi! ez geala autobusea aiatzen!* Eta denak laisterrean... eta Arraiago karreteran korrika batean eta bi karreteran erdian egoten diren erdiko pibote berde haundi horietako bat aurrez aurre eraman zuen! Aireportuan Bruselasera ailegatu ginen eta denak lurrean etzanda, batzuk komunera, besteak erdi lo... Eta gero Bilbon haizearengatik ere ezin aurrenekoan aterrizatu. Benga buelta bat eta benga beste bat! Askok hegazkina hartzen genuen lehendabiziko aldia zen.
- Hegazkinean gindoazela Urrestillako bat eta Sorobarren diskutitzen aritu ziren mendi bat ikusitakoan. Sorobarrenek ezetz, hori ez zela mendia hori penintsula zela. Eta guk kontra egiten: *Hik ba al dakik penintsula zer den?* Eta berak zutik jarrita: *Hori penintsula behintzat!*
- Torbayara joan ginenean Ferrian ibili ginen eta gu ere gafeak, berez Ferria oso lasaia omen zen eta gu joan beharreko egunean eguraldi oso txarra eta denak hantxe bazterrean jarri eta ilaran larri. Eta Joseba berriz Ferrian sartu eta bide osoa lo! Hemendik hasi eta Ingalaterraino, 24 ordu lo.
- Ingalaterrara joan ginenean erretxinarekin aritzen ginen goma gainean eta gasoila eramaten genuen eskuak garbitzeko botila batean. Kirolegei batean ginen eta aldagelak han geneuzkan baina denentzako tokirik ez zegoen eta sala moduko bat zegoen baita eta han geunden tiralditik tiraldietarako deskantsoetan. Gu han geundela etorri ziren lesakarrak, eta tartean Beñardo. Botila bat genuen bistan eta nik ez dakit zer pentsatu zuen genuela barruan, botila hartu zuen eta tragoa egin zion. Botilan gasoila zegoen! Hark seguraski egin



Aireportuan.



Torbay-ra 1997an egindako bidaiaren itsasontzian ateratako argazkia.

zuen jakiteko guk zein bitamina edo zer edaten genuen.

- Furgonetarekin joan ginen Ingalaterrara eta "Manoak" tabakoa behar zuela eta tabakoa behar zuela. Eta Patxik bera joango zela bila. Eta joan eta zegoen tabakorik garestiena erosi zuen, garai hartako 1.000 pezeta. Ekarri zuen, eman zizkion kanbioak eta Manoak: *La letxe! Ez dituk merkeak zigarro hauek! Onak izango di-*

tuk! Eta gero denak erretzen aritu ginen, oso onak izango zirela hainbeste pagatuta eta banaka banaka zigarroa pasaz.

- Guri Josu entrenadoreak hasiera hartan esaten zigun, entrenamendua eta gerorako jateko pasta eramateko. Eta ailegatzen da pasta ateratzeko momentua eta nik pastas Cuetara kaja atera, kaja haunditakoa! Niri pasta esan eta hori gogoratu.

Nola gogoratzen duzu sokatira garaia?



Karmen Garmendia

Oso oroitzapen onak ditut. Ez dut inoiz ahaztuko mundiala irabazi zuten urtean herrira etorri zirenean semeak kalean ikusi eta berak eman zidan besarkada, hain pozik zegoen airean ibili ninduela.

Askotan pisuan sartzeko argaldu behar izaten zuten, eta egunean otordu bat bakarrik egiten zuten. Aitak askotan esaten zion gehiago jan gabe ezin zuela indarririk izan, eta hori entzuten zuenean oraindik jenio txarragoan jartzen zen. Nahiko jana izan eta ezin jana, hori zuten miseria.

Arropak garbitzerako orduan nahiko buruhauste izaten nituen. Aurrena eskuz garbitzen nituen eta gero labadoran jartzen nituen, ez ziren osotara garbitzen baina ahalegintzen nintzen. Denborarekin ohitu egin nintzen, ez zen hainbesterako izan.



Lourdes Artola

Gure etxean egun osoan ez zegoen beste konturik, erabat sokatira genuen buruan. Gure bizimodu guztia sokatiraren beharretara moldatzen genuen. Sokatira ikustera joan behar bagenuen, egin beharreko lanak aurreratzeko genituen edota lehenago bazkaltzen genuen.

Laguntza eskatzen zidaten gauza guztietan laguntzen nien, esaterako fruta erosi behar zela edo finantzaketa bilatzen lagundu behar zela, dena egiteko prest izaten nintzen.

Beraien arrimoan herri askotara joan ginen, oso gustura joaten nintzen animatzera. Batzuetan juezarekin haserretzen ginen, beste taldearen akatsak ikusten ez zituelako. Eta hainbeste tiraldi ikusi ondoren gure arteko elkarrizketetan beste akatsak aipatzen genituen edota talde batzuk besteak baina pikaragoak zirela eta horiekin kontuz ibili behar zela. Nik ez nuen tiratzen baina tiratzen zutenek bezala bizi nuen.



Maria Belauntzan

Mutilen sokatira taldearen atzetik urte asko ibili ginen, auskalo zenbat aldiz joan ginen animatzera. Berdin zuen non ibili behar ziren gu ere atzetik joaten ginen.

Herrian ere giro polita sortu zen, sokatiraren aitzakian jende asko mugitzen ginen. Esaterako mundiala eta Euskal Herriko txapela irabazi zutenean, ongietorri politikak antolatu ziren herrian.

Neskek ere sokatira taldea atera genuen. Beraiek bezala jantzen ginen, jantzi kolore berdinak genituen. Gu ere herriz-herriz ibili ginen, hori bai guk urte gutxi iraun genuen, lan gogorra zen. Sokatiraren aitzakian jende asko ezagutu genuen, parranda batzuk ere bota genituen. Oso ongi pasa nuen, oso oroitzapen onak ekartzen dizkit.



Mauro Baraibar

Azkar pasatzen da denbora, nork esango luke dagoeneko 25 urte pasa direnik. Guk etxean, bai nire aldetik bai andrearen aldetik, hasierako sokatiran ibili den jendea izan dugu. Oso kirol gogorra da, etxeok nola ibili ziren badakigu. Biak ala biak momentu askotan jenio txarrean izaten ziren. Baina beraiekin esperientzi oso onak ere izan genituen, dena ez zen sufrimendua izan.

Txapelak irabazten hasi zirenean ikaragarritzko poza ematen zuten Aresoren izena leku guztietara zabaltzeak.

Tarteka joan ginen animatzera, gehienbat herrian antolatzen ziren erakustaldiak ikusten genituen. Mundiala irabazi zutenean Patxikunean egin zitzaion ongietorrira joan nintzen, oso berandu etorri ziren, eta ilunduta egin genion ongietorria.



Julio Nieto

Batez ere hasierako urteak oso politak izan ziren. Taldeak txapelak irabazten hasi zirenean ikaragarritzko poza ematen zuten. Sokatiraren aitzakian makina bat txoko bisitatu genituen,

eta sokatirari esker gure herria leku askotan ezagutu zuten.

Oso lan gogorra egiten zuten, horietako batzuk egun osoan lanean egon eta entrenatzera etortzen ziren gure bordara. Han izaten ziren txerri artean kanpin gaseko argi txiki batekin entrenatzen. Ez zeukaten batere erosotasunik, baina han izaten ziren entrenatzen. Entrenamendua bukatutakoan hurrengo egunean berriro lanera joateko prestatzen ziren. Gaur egungo jende gazteak ez du horrelako sakrifizioarako borondaterik. Pena da jarraipenik ez izatea, pena da lortutako guztia hor galtzea. Baina lortutako gauzak hor daude-la ez dugu ahaztu behar.



Jokin Barandain

Sokatira taldea sortu zutenean ni oso gaztea nintzen. Hasiera hartan herriko jende asko mugitzen zuen, denborarekin herriko jendea ateratzen joan zen eta horrekin batera herriko afizioa.

Pena da taldeak aurrera jarraitu ez izana, baina sokatira oso kirol gogorra da, sakrifizio asko eskatzen ditu. Alde batetik entrenamendu gogorrak egin behar dira eta bestetik pisuan sartzeko askotan gosez egon behar da, eta nik nire burua ez dut hori egiteko gai ikusten. Ni pilotan ibili nintzen eta agian horregatik ez nintzen sokatiran ibili. Hala ere asko sufritu beharreko kirola den arren bere alde ona ere izango du, batez ere txapela irabazten denean, momentu horretan sufrimendu guztiak ahaztuko dira.

Garai bateko Areso

Hemen dituzue Aresoko hainbat argazki zahar eta berrixeagoak, garai batean gure herria nolakoa zen erakusten digutenak batetik, eta bestetik, hainbat herritar orain baino gazteagoak ageri diren erretratoak. Gustura jaso ditugu eta gustura eskaintzen dizkizuegu aldizkarian. Argazki hauek denak utzi dizkigutenei eskerrak eman nahi dizkiegu, haien borondatea benetan eskertzekoa delako. Hurrengo batean ere jaso nahiko genituzkeela adierazi nahi dizuegu, bide batez, ederra baita gure herriaren ohiturak eta bizimodua berreskuratzea argazki zaharrei esker. Eskerrik asko!



1897-10-31 Astamelako zubia.



Jose Maria Onsalo eta Josepa Oieregien ezkontza Elizondon.





Aresoko mutil kuadrilla.



Neska eta mutilen arteko sokatira saioa herriko pestetan.



Txuineko familia.



Nesak garaile, neska-mutilen arteko sokatira saioan.



1950 urte inguruan.



Aresoarra autobuseko langileak.



1897-10-31 Etxeberria.



1950 urte inguruko jaunartzea.



1977ko jaunartzea.



1897.10.24 Mantrola.



Constante eta Fernanda esneketariak.

Felisa Pellejero Ugalde, Aresoko erraketista

Askorentzat emakume hau ezezaguna izango da, beste batzuek ordea bere berri izango duzue. Felisa Pellejero 1918. urtean Apezenean jaio zen pilotari profesionala izan zen.

Ildefonso Anabitarte enpresa gizonak emakumezkoen erraketa kirola sortu zuen. Frontoiko pilota modalitate hau tenisaren antzekoa zen. Emakumeak erraketan modu profesionalen lehenengoz 1917an jokatzen hasi ziren. Erraketak arrakasta izan zuen, eta mundu guztira zabaldu zen. Emakume erraketistak mundu guztiko frontoietan aritu ziren: Donostia, Bilbo, Iruñea, Madril, Bartzelona, Sabadell, Valentzia, Sevilla, Vigo, Logroño, Santander, Zaragoza, Salamanca, Valladolid, Kanariar uharteak ... baita Mexiko, Brasil, Miami eta Kuban ere.

Hasiera batean Madrilen ez zegoen zaletasun handiegirik, jendea frontoietara kuriositatez gerturatzen zen. Baina denborarekin hori aldatuz joan zen, eta Madrilen halako arrakasta lortu zuen, emakumeen erraketa eskola bat baino gehiago sortu zirela, garrantzitsuenak Madrid eta Recoletos eskolak izan ziren. Erraketa eskola bakoitzean bertako estiloan jokatzen erakusten zieten.

Felisak 1939ko azaroaren 1ean, 21 urterekin, egin zuen debuta Madrid Frontoian. Debutatu zuenean ez zen gaztea, normalean beste pilotariak 14 edo 15 urterekin debutatzen baitzuten. Hasiera batean Madrilen erraketan jokatzen zuten nesken gehiengoak euskaldunak ziren baina denborarekin hori aldatu egin zen.

Diktadura garaia zen eta kirola ez zen lanbide aproposa emakumeentzat. Emakumeek etxean egon behar zuten, etxeko lanak egiten eta familia zaintzen. Hala ere Felisa bezalako gazte batzuk Madrilerako bizimodua aurrera ateratzera joan ziren. Esaterako Elduaingo Soroa eta Berastegiko Lezea pilotariak Felisarekin Madrilen pilotan jokatzen aritu ziren. Marcelina Lezearen kasuan, ez zen gaztelaraz moldatu, eta 3 urteko kontratua



PELOTA

**FELISA
PELLEJERO
UGALDE
(ARESO)**

Fecha de nacimiento: 18 de julio de 1918.

Club al que pertenece: FRONTON MADRID (hasta su muerte).

Ha sido muy corto el historial deportivo del año 1966 de la pelotari FELISA PELLEJERO UGALDE (Areso), pues falleció el día 1 de junio de este año como consecuencia de las lesiones sufridas en la cancha, el día 12 de febrero del mismo año.

Aunque nunca ha sido una superclase como pelotari, siempre actuó en todos los partidos estelares formando pareja con las mejores.

Su comportamiento en la cancha desde su debut, el 1 de noviembre de 1939, en el Frontón Madrid, donde ha actuado toda su vida profesional, ha sido intachable desde todos los puntos de vista. Siendo elegida por la Empresa siempre que hubiese que dar unas exhibiciones fuera de su propia cancha, dejando en todos sitios un grato recuerdo por su juego agresivo y machacón, por su compañerismo y por su alegría.

Felisa Ugalde zendu zenean frontoiak atera zuen idatzia.



Fronton Madrid-i buruzko iragarkia.

bukatu baino lehen Berastegira bueltatu zen. Berarentzat oso esperientzia gogorra izan zen.

Garai horretan Areson ere bazen eskupilotan ongi moldatzen zen neska gazte bat. Nesken artean ez zuen parekorik eta mutilen aurka jokatzeko zuen. Felisa neska hau Madrilera eramaten saiatu zen baina bere familiak ez zion Madrilera joateko baimenik eman eta etxean geratu zen. Neska gaztearen amak horrela erantzun zuen: *“Neska gazte batek zer egin behar du Madrilen bakarrik? hobekiago dago etxean! etxean nahiko lan baditugu buruhauste berririk gabe”*.

Lan baldintzei dagokionez, honako baldintzak izaten zituzten. Soldadari dagokionez, hilean soldata finko bat izateaz gain, “kiniela” deiturikoak jasotzen zituzten, hau da, aurreneko 6 tantoak egiten zituztenei gain-sari bat ordaintzen zieten. Hori dela eta lehia handia izaten zuten neskek, inork ez zuen partidua galdu nahi izaten. 40ko hamarkadan 300 eta 400 pezeta arteko soldata izaten zuten. 60ko hamarkadan, ordea, 2.500 eta 3.000 pezeta artean irabazten zuten. Eta garai berean Hego Ameriketara jokatzeko zuten neskek 15.000 eta 30.000 pezeta irabazten omen zuten.

Oporraldiari dagokionez, urtean hila-beteko oporrak izaten zituzten eta hila-betean bi egunetan ez zuten partidurik jokatzeko. Normalean egunean bi partidurik jokatzeko zuten, aurrenekoa arratsaldean eta bigarrena gauean. Eta neskaren bat gaixo jartzen bazen, haren lekua betetzen zuten pilotaria egunean hiru partidurik jokatzera iritsi zitekeen.

Frontoiko enpresariak urtebeteko kontratuak egiten zizkieten. Gainera enpresak ez zien etxebizitzarik jartzen, eta pilotariak beraien kideekin batera etxeak errentan hartzen zituzten. Adin txikikoak baziren, 21 urte azpikoak, apopilo egoten ziren garai hartan, eta irabazten zuten soldataren gehiengoarekin etxea ordaintzeko erabiltzen zuten. Materialari dagokionez, neskek beraien erraketa, pilotak eta jantziak erosi behar izaten zituzten.

Emakume kirolariak ez zeuden ongi ikusita. Publikoak era guztietako irainak esaten zizkieten, batez ere beraien alde



Felisa Pellejero bere bi ahizpen erdian.

FRONTONES

MADRID.—4 tarde: Nices-Isabel, Irene-Elena; Areso-Josefina I, Mari Tere-Angelita. 10,15 noche: Florita-Angelitas, Areso-Ermua II; Cristina-Mari-chu I, Ermua I-Mari-chu II.
RECOLETOS.—4,30: Amorebleta-Aguirre; Ricardo-Urzay. 10,30: Abrego I-Ezponda contra Arano I-Salsamendi-Iturain.

ABC egunkaria, 1942ko abenduaren 1a, partiduen iragarkia, egun honetan bi partidurik jokatu zituen.

FRONTONES

FRONTON MADRID.—4,30: Siete partidos y seis quinielas. 10,30: Presentación de la sensacional Chiquita de Anoeta en el siguiente partido: Piluchi-Chiquita, Areso-Irura. Antes se jugarán tres partidos más.
RECOLETOS.—5,15: Durán-Oroz I; Murguía III - Zarandona; Santesteban - Salsamendi III, Prat II-Prat I-Alberro. Antes, otro a paña.

ABC egunkaria, 1952ko apirilaren 6eko partiduen aipamena.

FRONTONES

MADRID.—5: Partidos y quinielas a raqueta y cesta bunta. 10,30 Areso-Hortina contra el trió formado por las hermanas Anita-Marujita-Victoria, difícil de volver a presenciar. Y octavo partido trofeo Ayuntamiento de Madrid, Piluchi-Carmencita I contra Pina-Delehita.
RECOLETOS.—5,15: Sarasola I-Quintana III; Ramondegui-Ibarra. Dúo-Zarandona; Durán-Donosti. Antes, otro a cesta.

ABC egunkaria, 1957ko maiatzaren 22, partiduen iragarkia.

apustua egin bazuten eta galtzen ari baziren. Tristeia den arren, denborekin era guztietako gauzak entzutera ohitu egin ziren. Beraien asmo bakarra partidua irabaztea izaten zen.

Erraketistak bizi zuten garairako emakume aurreratuak ziren. Normalean neska ezkongabeak ziren, eta ezkonduak baino askatasun handiagoak izaten zituzten. Baina ez dugu ahaztu behar beste garai bat zela eta emakumeek muga asko izaten zituztela. Esaterako iluntzeetan jokatzeko ziren partiduetan gaueko 12etan etxeratzen zirenean, emakumeek ezin zuten kalean bakarrik ibili, horregatik beraien familiako gizonetakoekin etxeratzen ziren edota enpresako norbaitekin.

Emakume pilotarien garairik hoberenak 60ko hamarkadara arte eman ziren. Frantziako diktaduraren ustez, emakumeentzako pilota ez zen lanbide aproposa eta neska kirolari berri gehiago ez onartzea erabaki zuten. Ondorioz joko horretan aritzen ziren frontoiak poliki-poliki ixten hasi ziren. Erraketa modalitatea Madrillgo frontoian bakarrik mantendu zen eta azken partida 1980. urtean jokatu zen.

1966ko otsailaren 12an Felisa pilotan jokatzeko ari zela ezbehar bat izan zuen. Pilota batek buruan jo zuen eta handik hilabete batzuetara zendu zen. Bera hil eta hilabete gutxira, Madrillgo eskolako omenaldi hau egin zion. Eskuinean duzue ABC egunkariko zati batean argitaratu zutena.

Felisa ezagutu zuten pertsonak hiru ezaugarriekin deskribatzen zuten. Alde batetik oso emakume bizkorra zen, herrian ez zen bera bezalakorik pilotan. Herriko hainbat gizonen baino indar handiagoz ematen zion pilotari. Bestalde oso alaia zen, beti irribarre bat zuen ahoan. Eta azkenik oso emakume langilea zen; Madrilldik herrira etortzerakoan etxeko lanetan esku bat botatzeko beti prest izaten zen, baita ukuiluko lanetan ere.

Erraketista hoberenetakoa izan zen arren, urte askoz kirolari profesionala izan zen eta beti hoberenekin jokatu zuen. Txapela adinean aurrera zihoala irabazi zuen, ia 50 urterekin lortu zuen. Bere enpresak Madrilen bertan edo handik kanpo antolatutako ekitaldietan parte hartzeko bera-

Entre los profesionales de categoría femenina sólo figura una deportista seleccionada a título póstumo: se trata de la malograda pelotari FELISA PELLEJERO UGALDE (ARESO), que perteneció al Frontón Madrid hasta el momento de sobrevenirle el fatal accidente que le causó la muerte.

ABC egunkaria, 1967ko otsailaren 22an egindako omenaldiaren aipamena.

PELOTA

ARESO GANO A ZALDUA EN EL TORNEO INDIVIDUAL DE REMONTE

Pamplona 24. En el frontón Euskal-Jai se jugó un partido correspondiente al torneo individual de remonte para el Campeonato de España entre Zaldúa, del Recoletos, de Madrid, y Areso, de Pamplona.

De nuevo, las facultades portentosas de Areso se impusieron a la mejor clase de Zaldúa, desbordándole en todo momento hasta vencerle, por diez tantos de diferencia y por el resultado de 35-25 a su favor.

Puede considerarse ya campeón del torneo a Areso.—Mencheta.

ABC egunkaria, 1952ko uztailaren 25a, Juan Baraibarrek txapela irabazi zuen eguneko aipamena.



Juan Baraibar Pellejero, Areso.

rekin kontaktatu zuten. Diktadura garaian familia herrian utzi eta Madrillera joan zen emakume aurreratu izan zen, bestalde ekonomikoki ez zuen inoren beharrik izan. Felisa Pellejerek Areso izena leku askotara zabaldu zuen eta hori guretzat ohore bat da.

Ba al zenekien?

Bere familian ez zen pilotari profesional bakarra izan. Bere iloba Juan Baraibar Pellejerek Erremontean jokatu zuen eta Felisak bezala Areso izenarekin jokatu zuen. Juanek Iruñeko Euskal Jai enpresarentzat lan egiten zuen. 1952 urtean Iruñeko Euskal Jai, Hernaniko Galarreta eta Madrillgo Recoletos enpresek antolatzen zuten torneoan Zalduaren kontra txapela irabazi zuen. Goiko aldean duzue momentu horretan idatzitako kronika.



INGURUTXOA

Ba al dakigu zer den ingurutxo bat? Non dantzaten da gaur egun? Eta antzinan? Zein instrumenturekin jotzen da edo jo izan da? Zein atal ditu? Guk gaur egun ezagutzen dugun bezalakoia izan al da beti? Hauek eta beste galdera asko nituen nik buruan ingurutxoak ikasten eta aztertzen hasi nintzenean.

Edozein ikerketa lanen hasiera aurretik gaiari buruz dauden lanak aztertzetik hasten da, irakurri, ikasi, alderatu, ulertu egin behar izaten dira denak. Ingurutxo ez da oso zabaldua dagoen dantza bat, baina harrigarria da zenbat bibliografia bila daitekeen honen inguruan.

Lehen galdera erantzuten hasiko naiz. Zer da ingurutxo bat? Joxe Mari Jimeno Juriok idatzia utzi zuenez lau ezaugarri betetzen dituen dantza bat da ingurutxoak:

1. Bikote mixtoetan dantzaten da non sexu bakoitzak bere ezaugarri berezi eta funtzioak dituen.
2. Borobil irekian dantzaten da beti.
3. Bere norabidea erlojuaren orratzen aurkakoa da.
4. Lehen eta azken bikoteak besteak baino garrantzitsuagoak dira.

Baina noski, ezaugarri hauek ingurutxoak ez ezik beste dantza batzuk ere betetzen dituzte, esaterako horren ezaguna

den Larrain dantzak, Erronkariko Ttun-Ttun-ak, Sakanako Zortzikoek, Doneztebeko Trapatan dantzak, Ultzamako Inguru dantzak, Baztan aldeko Gaitak, Iruñerriko auzo ezberdinetako Mayordomoek, Nafarroa erriberako zenbait herrietako baltsak, Ablitasko "El Plego" dantzak esaterako, edo Nafarroako mugaz gaindi, Gipuzkoako Soka Dantzaren bigarren atalak.

Orduan? Denak ingurutxoak dira? Ez, baina ezaugarri berdinak zituzten dantzak dira, beste modu batera esanda, funtzio berdina zuten dantzak dira:

- **Funtzio soziala:** Dantza hauek herriko gazteak erlazionatu eta elkartzeko balio zuen.
- **Funtzio ludikoa:** Dantzatuz jendeak ongi pasatzen baitzuen.
- **Funtzio politikoa:** Pertsonai bakoitza desberdina izateak beraien artean desberdintasunak egotea eragiten du. Horrela, aberatsenak edo dantzari hoberenak besteengandik bereizten ziren lehen edo azken posizioetan dantzatuz.
- **Funtzio pedagogikoa:** Dantzak ume zein gazteei gizartean beraien lekua zein zen erakusten zien. Gainera, gizartean oso barneratuak zeuden legeak ulertarazten eta asimilarazten ditu. Ume eta gazteei psikomotritateak garatzen laguntzen zien.

- **Funtzio rituala:** Dantza hau errito bati lotua egon izan da, hau da, festa egun garrantzitsuetan dantzaten zen santuaren edo ama birjinaren omenez.
- **Plaza hartzeko funtzioa:** Dantza hau dantzatzeke lehenik eta behin plaza edo leku zabal bat behar da eta dantzari beraren jabe egin behar dute. Herrietan ez zen arazorik izaten, baina dantza herriatik ateratzean eta herri ezberdinetako gazteak topatzean, garrantzitsua zen oso.

Gaur egun hauetako batzuk galduak dira, funtzio soziala edo plaza hartzekoa, baina beste bi sortu dira, **Funtzio identitarioa** eta **Ikuskizun bat sortzea**. Mikel Aranburu Urtasunek, egungo Nafarroako Gobernuko ogasun konseilariak, dioenez, dantzak herriarekiko lotura finkatzen du, beste herrietako bizilagunak alde batera utziz. Gainera, egungo gizartean berebiziko garrantzia dauka ikuskizuna eskeintzeak, eta dantza honek ere funtzio hori betetzen du.

Gaur egun Ingurutxoak izenarekin ezagutzen den dantza hainbat herritan dantzaten da Nafarroan, Leitzaan, Iribasen, Ihabarren, Areson... Gainera, Gipuzkoako Bedaio herrian eta Amezketako Ugarte auzoan ere dantzaten da. Herri bakoitzean



2005. urteko dantza taldea.



Aresoko kuadrillen egune 2015.

txistulari hauek izan dira eta dira tradizioaren bultzatzaile:

1. **Leitzan** Miguel Antonio Barriola "Pastain", Evaristo Elduayen, Angel Alduntzin, Juan Miguel Saizar, José Luis Uhartte eta Pilartxo Sagastibeltza, besteak beste
2. Yon Andoni Sarasola **Bedaion.**
3. Salvador Mutuberria, Juan Mari Beltrán eta Aitor Urquiza **Iribasen.**
4. Esteban Labayen, Fermín Azpíroz, Xabier Zubillaga, Itziar Nieto, Modesto Lasa eta Xabier Olazabal **Areson.**

Baina ze herritan dantzatu izan da? Galdera hau da erantzuteko zailena. Egindako lanak erakutsi du Uitzin, Atallun, Gorritin, Goizuetan edo Auritzen ere dantzatzeko zela, baina hauetako batzuetan partitura edo informazio argiagorik badagoen arren, Uitzin, Auritzen edo Burgeten esaterako, besteetan ez da horrela. Ikerketa lan asko dago aurretik egiteko gai hau ongi ikasi nahi badugu. Gaur egun izen ezberdinekin dantzatzeko diren ezaugarri berdineko dantzak lekutzen baditugu mapa batean horrela irudika daiteke:

Ikus daitekeenez, Ingurutxoaren eremua oso zabala da, gaur egun ezagutzen dena baino askoz ere zabalagoa. Horregatik esan daiteke, horietako herri askotan gure dantza existitzen zela, nahiz eta erreferentziarik ez dagoen gaur egun.

Instrumentazio normalena txistua, danbolina eta atabala izan da. Txistularia bat baino gehiago izan daiteke, Leitzan edo azken urteetan Areson gertatu den bezala. Baina Bedaion zein Iribasen normalean txistulari bakarra izan ohi da. Areson du-

gun berezitasuna da Sutegiko Bautistak grabatua utzi zuela akordeoiaekin joa. Noski, berau soinu-jolea izaki, ezingo zuen txistuarekin jo eta herrian beste inor ez bazen jotzeko, akordeoiaekin jo behar.

Areson Ingurutxo Juan Antonio Urbeltzek eta bere emazteak bildu zuten 1988. urtean. Grabaketa ere beraiek esanda egin zuen Bautista Caballerok. Gaur egun jo eta dantzatzeko denaren iturri da grabaketa hori, beraz, bere biziko garrantzia dauka herriarentzat.

Hala ere ez da Aresoko Ingurutxoari buruz dagoen erreferentzia bakarra. Carmen Esquiroz anderea ere aritu zen biltze lanetan eta bere esanetan, dantzaren hiru bertsio zeuden. Jarraian gaur egun dantzatzeko den Ingurutxo atalka adierazia:

1. Ingurutxo
 - a. Deia
 - b. Inguru Haundia
 - c. Inguru Haundia
 - d. Zubia
 - e. Zortzikoa
 - f. Inguru Haundia
 - g. Inguru Haundia
 - h. Zubia
 - i. Zortzikoa
 - j. Inguru Txikia
2. Fandangoa
3. Arin Arina
4. Kalejira

Ondoren, Carmen Esquiroz andereak bilatu eta bildutakoak:

Lehendabizikoa

1. Ingurutxo
 - a. Inguru Haundia
 - b. Zortzikoa

- c. Inguru Txikia
- d. Zubia
- e. Zortzikoa
- f. Inguru Txikia
- g. Zubia
- h. Zortzikoa
- i. Inguru Haundia

2. Fandangoa
3. Arin-Arina
4. Kalejira

Kasu honetan harrigarriena inguru txikiaren ondotik zortzikoa datorrela eta jarraian inguru haundia. Hau ez da batere ohikoa dantza mota honetan.

Bigarrena

1. Ingurutxo
 - a. Dantza 2/4 konpasean (zapirik gabe dantzatzeko da)
 - b. Dantza 2/4 konpasean (zapiek dantzatzeko da)
 - c. Zubia
 - d. Dantza 2/4 konpasean (zapiek dantzatzeko da)
 - e. Zubia
 - f. Zortzikoa
 - g. Melodia 3/8 konpasean (auresku-ak neskei begira dantzatzeko da)

Bigarren aldaera honetan, harrizkoa da fandango, arin-arin zein kalejirarik ez izatea. Horrek ez du esan nahi txistulariak joko ez zituenik, baina horrela ageri da. Beste berritasun garrantzitsua lehen inguru haundia zapirik gabe dantzatzeko da.

Hirugarrena

1. Ingurutxo
 - a. Dantza 2/4 konpasean zapirik gabe



Ingurutxoaren berreskuratutako dantzariak.



Ingurutxoaren berreskuratutako dantzariak eta musikariak.

- b. Zortzikoa (mutil guztiek beraien bikotekideei dantzatzeko diete)
 - c. Dantza 2/4 konpasean zapirik gabe
 - d. Zortzikoa (aurrekoaren berdina)
 - e. Melodia 2/8 konpasean, kasu honetan zapiekin
 - f. Zubia
 - g. Melodia 3/8 konpasean zapiekin
 - h. Zubia
 - i. Zortzikoa (aurrekoen antzera)
 - j. Melodia 2/4 konpasean zapirik gabe
2. Fandangoa
 3. Arin-Arina

Hirugarren aldaera honetan aurreko bi kasuetan ikus daitezkeen bi berritasunak batera datoz, hau da, inguru haundiak (2/4 konpasean dantzatzeko direnak) zapirik gabe dantzatzeko dira eta Ingurutxoaren azken atala Inguru Haundi bat da Inguru Txiki bat izan beharrean.

Nik ez dakit Esquiroz andereak nondik ateratu duen informazio hau, baina nere eskutara iritsi da eta nik adierazi egin dut.

Ez nuke artikulu hau bukatu nahi Joxe Saizarri eta Mertxe Tolosari aipamen bat egin gabe. Bi herritar hauek Ingurutxo bere funtzio originalean ezagutu zuten, hau da, igandero meza ondoren plazan Ingurutxo dantzatzeko ziren garaikoa. Nerretzat, beraien testigantzak ikaragarriko balio dauka. Beraiekin joan den urteko urtarilaren 2an elkartu nintzen Arraio etxean eta beraiek esandakoetatik garrantzitsuenak idatziko ditut. Gustora elkartuko nintzateke berriz biek, baina tamalez, Meritxek orain gutxi utzi gintuen. Goian bego.

1. Bien esanetan, gaur egun dantzatzeko dugun Ingurutxo ez da beraien gaz-



2017ko haurren ingurutxoaren berreskuratutako dantzariak.

taroan dantzatzeko ziren berdina. Ez dira gogoratzen nola zen, baina gaur egungo ez omen da.

2. Txistuak zein akordeoiaz joa entzun dute dantza. Gainera, herriko gazteek beti ordaintzen zieten musikariei. Beraiek aditzera emandako diru kopurua 6 duro eguneko da. Musikaririk ez bazegoen, Txuileneko Angelek kantatuta dantzatzeko zuten.
3. Herri guztiak dantzatzeko zuten, zahar eta gazte. Baita umeek ere, ilaran azken tokietan jarrita.
4. Igandetan dantzatzeko zuten, normalean 3 edo 4 aldiz dantza berdina. Igandero dantzatzeko zuten, egun berezietan (Santa Ageda bezperan, San Juanetan, Karnabaletan, Korpus egunean, San Pedroetan...) ere dantzatzeko zuten. Hauetan, puska biltzea egiten zuten gazteek eta dantzatu ondoren Zubiri ostatura joaten ziren afaltzera.

Puska biltzea azkarragoa izan zedin, txistularia alkatea bizi zen auzora joaten zen inguruko etxeetan biltzeko eta akordeoilaria herriko beste puntara joaten zen beste gazte kuadrilla batekin.

5. Inguruetako Ingurutxorik ezagunena Aresokoa zen, eta berau ikustera jende asko biltzen zen beste herrietatik.
6. Ingurutxoak bere biziko garrantzia zuten, bertako biztanleak ez baitziren herriatik ateratzen eta beraz, ingurutxo gauza handia zen.
7. Ezkongabeek bakarrik dantzatzeko zuten. Behin ezkondu, ez ziren plaza-ara ateratzen.

Bene benetan, eskerrik beroenak Joxeri eta Meritxeri beraien bizipenak niri zabal-tzeagatik. Askok eskertzen ditut.

Xabier Olazabal Etxegiak 2017ko maiatzaren 28an eta azaroaren 6an idatzia.

Bertsolaritza Areson

Bertsolaritzak azken urteetan hartu duen indarra eta sona ikusita, Areson duen eta izan duen tokiari erreparatu nahi izan diogu artikulu hone-tan. Gauza jakina da bertsolari asko eta asko pasa direla gure herritik, baina bertsolari bat edo beste ere izan ditugu herrian, baita bertsotarako afizioa izan duen jende ugari ere.

Hasi baino lehen, Jon Azpillaga hartu nahi genuke aipagai. Aurtengo otsailean hil zen 81 urterekin. Bertsolari ezagun hau ere askotan izana dugu herrian eta herritar batek gogorarazi digu orain dela 38 bat urte Pake-toki elkartearen abestu zuen bertsoa:

“Honekin bukauko al da entzuleen egarria arratseraino heldu gerala ez al zaude igarria. Aresotarrak hartu agurra eta ongi etorria maita zazute Nafarroa ta maita zazute herria”.

Gauza jakina da bertsolari txapelketek zer nolako jendetza biltzen duten gaur egun eta zer nolako sona duten. Orain hala ez bada ere, txapelketa hauen hasierako urteetan gure herriak izan zuen bere lekua, ondorengo laburpenean ikusiko duzuen bezala. Esaterako, Nafarroako III.



Jon Azpillaga.

Bertsolari txapelketa 1961.urtean jokatu zen. Bigarren kanporaketa Leitzan ospatu zen 1961eko irailaren 24an eta bertan Migel Zabaleta eta Mattin Azpirozek are-soarrek hartu zuten parte, eta biak Etxarri Aranatzan ospatuko zen saio nagusira pasa ziren.

1962. URTEKO NAFARROAKO ETA EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAK

Dena den 1962.urtea izan zen guretzat oparoena. Goizuetan 1962ko abuztuaren 19an ospatu zen Nafarroako IV.txapelketa-bigarren jardunaldia eta Juan Zabaleta, Migel Zabaleta eta Mattin Azpirozek hartu zuten parte. Hona bukaerako puntua ariketa bezala emanik Mattin Azpirozek botatako bertsoa:

“Mundu honetan dauzkagu bada Arrazoiakin guziak,
Batzuk politik izango dira
Beste batzuk itsusiak.
Ez dira onak oraindano nik
harrapatutako nausiak
“BERAK GAUZ ONEZ SABELA BETE
NERETZAT BETI GOSIAK”.

Saio horren ondoren, Migel Zabaleta bigarren lekuan gelditu zenez, abenduaren 30ean Donostiako Astorian jokatuko zen Euskal Herriko txapelketarako txartela lortu zuen. Alfonso Irigoien izan zen bertan gai jartzaile eta ez zen nolana hiko saioa izan. Ondorengoak izan ziren bertako partaideak:

- Fernando Aire, “Xalbador”
- Migel Arozamena
- Jon Azpillaga



1962ko Bertsolari txapelketa.

- Iñaki Eizmendi, “Basarri”
- Jose Migel Iztueta, “Lazako Txiki”
- Jon Lopategi
- Jose Joakin Mitxelena
- Manuel Olaizola “Uztapide”
- Mattin Treku, “Mattin”
- Migel Zabaleta.

Manuel Olaizola, “Uztapide” izan zen txapelaldun saio hartan eta lastima da ez dugula inon ere egun hartako irudirik lortu, ikustekoa izango zen... bertso sorta politik utzi zituen saioak, besteak beste Migel Zabaletak eta “Lazkao Txiki”k botatako hauek:



Bertsolari txapelketa. 1962.

ZABALETA ETA IZTUETA Irigoienek Zabaletari puntua:

Aita Santu gurea
Gaixorik daukagu,

Erregutzen ai bearra
uda eta negu
ari esan bearra
zerbait guk degu,
sendatzeko indezagun
guztiak erregu.

Lazkao Txikiri:

Asi dira angulak
Zertxobait merketzen

**Migel Zabaleta.**

Bañan guri jaterik
Etzaigu tokatzen,
Fiñak diranik oso
Ez baitet pentsatzen,
Aginagako izenez
Frantzitik ekartzen.

Zabaletari:

Kanpoan otz dago ta
emen dago epel

baita eskutan ere
makiña bat papel
Donosti zabaleran ere
bada franko hotel
jendia sebitzeko
ez gañea oso motel.

Lazkao Txikiri:

Donostian oraindik
egiten da euskaraz

euskaldun batek ori
ar bedi aukeraz
oraindik sayatzen dira
gure mintzoeraz,
al dezuten guztiak
ortan segi beraz.

Irigoienek: Ofizioa emango diegu orain
alkarrekin teman egin dezaten. Iruna ber-
tso. Zabaleta izango da pistolera, eta Laz-
kao Txiki banku batean enpleatua dagoe-
na. Sartu da pistolera bankuan ta bertan
arkitzen dan enpleatuari, pistola eskuan
duela, bankuko diru guzia eskatzen dio.

Zabaletak:

Ateraldi bat orain izan du
Zabaletaren buruak

**Mattin Azpiroz lagun artean.**

ikusirikan ikasitzeko
dauzkagun liburuak
zu or zaude banku batian
kanpo ta inguruak,
ilko zaitut, ekarri izkazu
zeorrek dauzkazun diruak.

Lazkao Txikik:

Gizon alperrak sumatuzten du
makiñatxo bat eskola
bañan pentsatu diruak zaintzen
funtzasunean nagola,
ik eskuetan ekarri arren
ikaratzeko pistola,
bizirik kentzen ez baldin banak
ez dit emango inola.

Zabaletak:

Modu onetan zeren bankuan
trantze txarrian jartzia
eta artzazu nik esan arte
zuk e ba pazientzia,
eta pentsatu zu or zaudela
diruan jaun ta jabia
bainan aguro pistolarekin
kenduko dizut bizia.

Lazako Txiki:

Pistolarekin egin nai dezu
emengo diruen jabe
lanian geyo sayatutzia
zuk ez al zenuke obe,
igertzen dizut zure barruan
eginik etsaizko labe
gelditu biazu dirurik gabe
eta itzalaren jabe.

Zabaletak:

Zu, bankerua, jarri dirazu

orain sekulako lana
bañan alare egin beazu
pistolera esana,
eta orduan ongi izateko
zuk izango dezu lana
diruak neri ekarri eta
ingo ditteu erdi bana.

Lazkao Txikik:

Nere etsai hau maltzurkerian
ni engañatuzten dabil
lendabizitik zakar asi zait
ta orain jarri zait umil,
bañan nola re nerekiua
gaur ez dek egingo, mutil,
iri ezertxo gaur utzi bañan
kasik nayago diat il.

Irigoienek: Zabaletari lau puntu jarri-
ko dizkiogu zortziko txikian bertsoa osatu
dezan: larri, sarri, jarri, alkarri.

Zabaletak:

Zutikan emen gertatzen naiz
orain ni re franko larri
ta juraduak erbakiya
artuko baitute sarri
eta orain emen atakak
iten dizkigue jarri
eta guk ziri galantak sartu
dizkagu emen elkarri.

Esan bezala Uztapidek jantzi zuen txa-
pela eta Basarri gelditu zen bigarren, baina
Migel Zabaletak ere izan zuen sari sorta,
hemen Irigoienek aurkeztuta:

"Zabaletak hartzen du erloju bat es-
natzekoa, Astrain zillarginañak emandako
kartera, mila pezeta, urrezko "gemeloak"
eta horiek ematen ditu Eibarko Adolfo
Santo etxeak. Bostuen pezeta Graficas
Valverde emana eta Gonzalez Byassek
emandako botila bat koñak. Gazteenari,
gañera, Zubiria jaunak emandako kopa.
Zabaletari beraz."

Hori da gutxi gora behera urte hark
eman zuena, eta bukatzeko aipatu behar
da 1963ko maiatzaren 19an Nafarroako V.
txapelketako kanporaketa bat Areson joka-
tu zela, bertan Migel Zabaletak parte har-
tu zuelarik gero saio nagusirako sailkatuz.

Aresoko mapak

Aurten Aresoko 2 mapa berri ditugu: Aresoko herrigunea jasotzen duena bata eta Aresoko baserriak metro mapa batera ekarriak bestea. Biak Leitzako Pablo Feok eta Joxe Miel Elosegik egindakoak dira. Lan bikaina egin dute, herriko etxe eta baserrien izenak jaso eta mapa batean kokatuz.

Aresoko herrigunearen mapan etxeak bildu dituzte. Ikusten duzuen bezala 2 erata bilatu ditzakezue etxeak: Batetik, izena-

ren arabera, alfabetoaren ordenean jarrita daude. Bestetik, zenbakien arabera sailkatuak, mapako etxe bakoitzak zenbaki bat baitu gainean.


Metro mapan berriz, auzoak eta baserriak ageri dira. 6 kolorez berezita daude Aresoko auzoak, eta auzo bakoitzean bertako baserriak datoz.

Auzoak, baserriak eta etxeak mapara ekartzeko behar bat ikusi zuten Pablo Feok eta

Joxe Miel Elosegik: Suhiltzaile, mediku edota erizaintzat lagungarri izango zen tresna sortzea. Larrialdia sortzen zenean baserri edo etxeen bila ahalik eta denbora gutxien galdezaten lortu nahi zuten.

Premia larria dutenentzat ez ezik, herri-tarrentzat ere oso baliagarri izango dela uste dugu, hona hemen zuek ere eskura izan ditzazuen herriko baserriak eta etxeak. Gozatu eta ikasi!





☆ **Lelo Interregional**

- A-4 1. Elia
- B-3 2. Ulisses, Osmar e Hina
- A-3 3. Sirlândia
- B-5 4. Sarmãez Duarte




13	Carreia	37	Silveira	54	Silva João
14	Alto	38	Alto	55	Alto
15	Alto	39	Alto	56	Alto
16	Alto	40	Alto	57	Alto
17	Alto	41	Alto	58	Alto
18	Alto	42	Alto	59	Alto
19	Alto	43	Alto	60	Alto
20	Alto	44	Alto	61	Alto
21	Alto	45	Alto	62	Alto
22	Alto	46	Alto	63	Alto
23	Alto	47	Alto	64	Alto
24	Alto	48	Alto	65	Alto
25	Alto	49	Alto	66	Alto
26	Alto	50	Alto	67	Alto
27	Alto	51	Alto	68	Alto
28	Alto	52	Alto	69	Alto
29	Alto	53	Alto	70	Alto

1	Alto	31	Alto	61	Alto
2	Alto	32	Alto	62	Alto
3	Alto	33	Alto	63	Alto
4	Alto	34	Alto	64	Alto
5	Alto	35	Alto	65	Alto
6	Alto	36	Alto	66	Alto
7	Alto	37	Alto	67	Alto
8	Alto	38	Alto	68	Alto
9	Alto	39	Alto	69	Alto
10	Alto	40	Alto	70	Alto
11	Alto	41	Alto	71	Alto
12	Alto	42	Alto	72	Alto
13	Alto	43	Alto	73	Alto
14	Alto	44	Alto	74	Alto
15	Alto	45	Alto	75	Alto
16	Alto	46	Alto	76	Alto
17	Alto	47	Alto	77	Alto
18	Alto	48	Alto	78	Alto
19	Alto	49	Alto	79	Alto
20	Alto	50	Alto	80	Alto

LETRA ZOPA

Aurkitu 10 azienda izen.



Erantzunak: Apotea, Axuria, Behoka, Biga, Iria, Moxala, Ollaloka, Txite, Zerrama, Zikiroa.

HIEROGLIFIKOAK

1. Asko hitz egiten duen persona.



- a



2. Aresoko baserri izena.



- bu

3. Presaka.



Erantzunak: 1.- Tartar, 2.- Santuru, 3.- Arranpalka.

ARGAZKI DIFUMINATUAK

Argazki difuminatu hauen atzean Aresoko 4 etxe daude, ea asmatzeko gai zareten.



Erantzunak: 1.- Alkotzene, 2.- Otsaena, 3.- Alkozko borda, 4.- Oxene.



ARESON ESTAIPE EDO TOKI ITXIA BEHAR DUGU?

- Bai lehenbailen. Negua luzea da-eta.
- Toki estaliak baditugu baina itxiak ez.
- Eskola atzekaldea itxi eta nahikoa da.
- Karpa finkoa jarriko nuke nik.
- Lurra badugu. Ea noiz ikusten dudan eginda.
- Toki estalia denontzat aberastasuna da.
- Bai, benetan diru arazoa hainbestekoa da?
- Plaza goialdean perfektua izango litzateke.
- Asko baldintzatzen du tokia itxia izan edo ez.
- Bai, gaur bertan bihar baino nahiago.
- Hori falta zaio herri honi. Bestela nahikoa da.
- Toki itxi batek herri mugimendua aberastuko luke.
- Atsedernaldia, kirola, kultura, taberna....denontzat tokia.
- Hainbat jardunaldi galtzen ari gara espazio falta dela-eta.
- Etxebizitzak behar dira....ez gara elkartu....toki itxia nahi dugu erabiliko al dugu?
- Hau aspaldiko eztabaida da. Ba al dakigu zer nahi dugun?
- Toki itxi batek dirua suposatzen du. Etekina aterako al diogu?